

BEZEROEKIN HARREMANAK:

Gure enpresak erosle edo bezeroekin izan behar duen harremana web bidezkoa izan behar da. Harreman presentziala posiblea izango zen gure enpresan, bai negozio aldetik begiratuta edo arazoren bat sortuko bazen ere kontsultatu ahal izango zen gurekin. Gure enpresan bezeroekin hainbat harreman mota emango ziren, kasu ezberdinetan, harreman ezberdinak. Gure produktua erosi ahal izateko, web orri bat sortuko edo aurretik sortuta dagoen web batean txertatuko genuke gure produktua. Orokorrean gure produktua eta bezeroekiko komunikazioa, automatizatua izango zen, hau da, produktua txertatu dugun web orrialdeak egingo luke lan hori. Horrez gain, komunitate bat sortu ahal izatea aurrerapen handi bat izango zen etorkizunera begira, honela produktuaren alde txarrak, zer hobetu, balorazioak... jaso ahal izango genituzke. Gure produktura bezero gehiago erakartzeko anuntzio metodo bat sortuko genuke, hainbat beste enpresa famatuei ordainduta gure produktua erakutsi dezaten, hori gastu bat izango zen, baina etorkizunera begira beharrezkoa den aurrerapauso bat da, gure produktua bai telebistan edo paperean agertzeko ahalegina egiten saiatuko ginateke.

